

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ingurumenak uholdeetatik babesteko uhateak banatu ditu Baztango eta Sunbillako bizilagun eta merkatarien artean

Esperientzia pilotu hau H2Ogurea proiektuari atxikita gauzatu da

Asteazkena, 2018.eko azaroak 7

Baztan eta Bidasoa ibaiek eragindako uholdeak pairatzeko arriskurik handiena duten Elizondoko eta Sunbillako eraikinek horietatik babesteko uhateak izango dituzte hemendik aurrera. Barrera horiek uholdeetan urpean gelditu ohi diren atarietan, saltokietan eta eraikin publikoetan jarriko dira.

Gaur goizean, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak 24 barrera eman dizkio Elizondori, eta beste bost Sunbillari, GAN-NIK enpresa publikoak kudeatzen duen H2Ogurea proiektu europarraren barruan. Neurri honen bitartez, uholdeei atxiki ohi zaizkion sakonera txikiko gainezkatzeen eta ibai ondoko saneamendu sareetan gertatu ohi den ur-mailaren goraldiaren ondoriozko kalteak murriztu nahi dira.

Uholdeen aurkako uhateak banatzeko ekitaldi ofiziala gaur eguerdiko formakuntza-saioan egin da, Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko zuzendari Eva García Balaguer eta Babes Zibileko zuzendari Isabel Anauten parte-hartzeaz. Jarraian, barrerak jasoko dituzten saltokiak eta eraikinak bisitatu dituzte Baztango alkate Joseba Otondo eta Sunbillako alkate Amets Indarekin batera.

Uhateak auzokideei, merkatariei eta Udalari berari banatu dizkiete, bereziki Elizondoko Jaime Urrutia kalean kokaturiko eraikinetarako. Sunbillako Udalari beste bost uhate eman dizkiete eraikin publikoetarako. Aisa asko maneiatu eta biltegitratzen ahal diren uhate horien instalazioa eta desmuntaketa oso erraza eta azkarra da, izan ere, jabeek bizkortasun osoz muntatu behar dituzte Udalaren jakinarazpena jaso bezain laster, Udal Larrialdi Planean aurreikusitako larrialdi fasea aktibatzen denean.



Ingurumeneko zuzendaria, Eva García, Babes Zibileko zuzendaria, Isabel Anaut, eta Baztango eta Sunbillako alkateak, Joseba Otondo eta Amets Inda, atarien zuloetan konportak jartzeko jarduerara joan dira, prestakuntza-saioan.

Elizondo eta Sunbilla Uholdeei buruzko Zuzentaraua hedatzean zehaztu ziren Uholde Arrisku Potentzial Handiko Guneetan kokatuta daude. Planteaturiko neurriak Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren 2015-2021eko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean nahiz uholde-arriskuari aurre egiteko Nafarroako Foru Komunitatearen Larrialdi Plan Berezian aurreikusita daude.

Bi herriek uholde-arriskuari aurre egiteko udal planak dituzte, eta tresna horiek etengabe eguneratutako informazio, alerta eta ekintzarako dispositiboa aurreikusi dute udal mailan, era horretako larrialdien aurka jarduteko. Plan horiek, besteak beste, uholdea gertatuz gero abiatu beharreko ekintza prozedurak eta Udalaren eta SOS Nafarroaren arteko alerta eta komunikazio prozedurak zehaztu dituzte. Gainera, Baztango Udalak Lamia aplikazio informatikoa balia dezake herritarrei alerta-mezuak (SMS) bidaltzeko.

Mugaz gaindiko Bidasoa, Urdazuri eta Urumea ibaiak era koordinatuan kudeatzea da H2Ogurea mugaz gaindiko proiektuaren helburua (EFA062/15). Uholdeak kudeatzea da xede nagusietako bat, eta horri atxikita garatu da oraingo neurria. Proiektua Eskualde Garapenerako Europar Funtsak (FEDER) finantzatu du Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko Lankidetzeta Programa Operatiboaren (POCTEFA 2014-2020) bitartez



Sunbillako bizilagunak konporta bat jartzen.